



IRAKASGAIAREN EDUKIN MULTZOA , EBALUAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZIO eta ERREKUPERAZIO SISTEMA

<p>3. Ingurugiroarekin dugun elkar-mendekotasunaz ohartzea</p> <p>4. Emozioen ezagutza eta kudeaketa garatzea</p>	<p>etikoen inguruko jarrera aztertuz eta arrazoituz eta elkarrizketaren bidez jorratuz.</p> <p>2.3 Genero-berdintasun eraginkorraren aldeko borroka eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta esplotazioaren arazoaz jabetzea, desparekotasuna, indarkeria eta genero-arrazoiengatiko diskriminazioa eta sexu-orientazioa aztertuz, eta LGTBIQ+ eskubideak ezagutzuz eta horiek errespetatzeko beharra aitortuz.</p> <p>2.4 Gizarte-ongizateari aktiboki laguntzea, jarrera propioa, esplizitua, informatua eta etikoki oinarritua hartuz eskubideen eta betebeharren balioari eta egokitasunari buruz, aniztasun etnokulturalarekiko errespetuari buruz eta tokiko eta munduko ondasun publikoak aintzat hartzeari buruz.</p> <p>3.1 Planetaren mugak eta gure bizitzaren eta ingurunearen arteko interkonexio, elkarren mendekotasun eta ekomendetasuneko harremanak ulertzea, Lurreko bizitzari eragiten dioten arazo ekosozial larrienen kausak eta ondorioak aztertuz.</p> <p>3.2 Garapen iraunkorra lortzeko etikoki konprometitutako bizimoduak sustatzea, bere kabuz eta bere ingurunean baliabideen, hondakinen eta mugikortasunaren kudeaketa jasangarrian, bidezko merkataritzan, kontsumo arduratsuan, natura-ondarearen zaintzan, aniztasun etniko-kulturalarekiko errespetuan eta animalien zaintza eta babesean engaiatuz.</p> <p>3.3 Klima-larrialdiari eta ingurumen-krisiari aurre egiteko hainbat planteamendu zientifiko, politiko eta etiko baloratzea, horiei buruzko azalpenaren eta argudio-eztabaidaren bidez.</p> <p>4.1 Emozioak, estimua eta norberaren eta besteen zaintza modu orekatuan kudeatzeko jarrera garatzea, norberaren emozioak modu asertiboan identifikatuz, aztertuz eta adieraziz, eta inguruko emozioak hainbat testuingurutan aitortuz eta baloratuz, sormenezko jardueren eta gai etiko eta zibikoei buruz banaka edo elkarrizketa bidez hausnartzeko jardueren inguruan.</p> <p>4.2 Autoestimua beste pertsona batzuekin harmonian garatzea, emozioak, afektuak eta desioak identifikatuz, kudeatuz eta komunikatuz, besteekiko errespetuz eta enpatiaz, harreman afektibo eta afektibo-sexualek izan behar dutenaren kontzeptu egokia sortuz.</p>
--	--



IRAKASGAIAREN EDUKIN MULTZOA , EBALUAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZIO eta ERREKUPERAZIO SISTEMA

- Eguneroko lana biltzen duen koaderno edo ta bestelako testu/lan idatziak: %50
- Klaseko jarrera, errespetua, parte hartzea, argudiaketarako gaitasuna (ahozko): %50

*Zehar konpetentzia guztiak ez dira ebaluatuko hiruhilabete bakoitzean, kurtso osoan zehar guztiak ebaluatuko dira jarduera konkretuen bidez.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazio bat, bi edo hirurak gaingitu gabe dituztenek dagokien ebaluazioaren edo ebaluazioen lana, gogoeta edo proiektua egin beharko dute.